

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Saneamendu-sarea eraberritzea Larrabeko geldoen zabortegei zaharraren inguruan, Larrabeko HUA zerbitzutik kanpo uzteko, eta euri-uren sare berria egitea ibilgura isuriz, jabari publiko hidraulikoan eta Nerbioi ibaiaren adarra den Larrabe izeneko jariatze-uraren eskuineko ertzeko zaintza-eremuan, Amurrioko udal-mugartean (Araba)

Espediente-zenbakia: AO-B-2020-0369

Eskatzailea: Amurrioko Udala.

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean, eskatutako baimenak kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten epe horren barruan, Bizkaiko Uren Zerbitzuan, Bilboko Urkixo Zumarkalea 36an, Bizkaia Plaza Eraikina, 7. Solairua. Espedientea han izango dute, nahi duenak azter dezan.

Bilbon, 2020ko urriaren 5ean

Lan baimenen arloko arduraduna
MIREIA IZARRA ORMAETXEA